



JOSUNE GOROSPE

«Espainian gobernu berria ez egoteagatik denbora galtzen ari gara»

Josune Gorospe
EAJko diputatua

Enekoitz Esnaola

Abuztuan lan pixka bat egin beharko dutela deritzo Josune Gorospe EAJko diputatuak (Dima, Bizkaia, 1969), nahiz eta dioen Espainiako Gobernua eratzeako erantzukizuna PSOEk eta Unidas Podemosek dutela. Uste du herenagun Pedro Sanchez gobernu-

buru atera ez izana euskal gaien kalterako ere badela.

EAJ abstenitu egin zen Espainiako Kongresuko bozketan. Zergatik ez zuen eman baietzkoa?

Gu Madrilerara ez goaz gobernatzen. Euskadiren eta euskal gizartearen interesak defendatzera goaz gu Madrilerara, eta, hori horrela izanda, bagenekien lehenengo adostasuna, adostasun nagusia, PSOEren eta Unidas Podemosen artekoa izan beharko litzatekeela, eta gero haiek beste taldeekin harremanetan hasi beharko ziren, baina ez dute akordioarik lortu, eta EAJk ezin zuen baietzkoa eman Pedro Sanchezen inbestiduran.

Egiteko moduei buruzko kexa azaldu zuen zure alderdikide Aitor Estebanek hitzaldian.

Egiten ari diren politika modu hori EAJk ez du gustukoa. Batetik, eduki aldetik, PSOEk eta Unidas Podemosek ez dute aurretik programaz hitz egin; izenak ateratzen aritu dira. Atzeko aurrera egin dute prozesu guztia. Eta, forma aldetik, itxurakerietan ibili dira, hiperkomunikazioan, eta herritarrek nekatu baino ez dituzte egin. Jakiten genuen elkarri zer eskatzen zioten, baina edukiaz ez genekeen ezer: ez dugu paper bat ere ikusi programa, helburu eta

metodologia aldetik. Zer egiteko ziren eskaera horiek? Falazia bat izan da negoziazio prozesua, eta tamalgarría eta negargarria egin, dako antzezlan. Gogoeta bat egin beharko lukete haiek. Irailaren 23ra arteko epea dute; bestela, hauteskundeak berriro. Has daitetzela negoziatzen, bala dezatela abuztua. Oreka puntu bat bilatu beharko dute, baina ezin da ahaztu beste talde batzuk ere beharko gaituztela eta errespetuz egin beharko dutela lan.

Euskal Herriko «itunerako kultura» laudatu izan da.

Euskadin hainbat erakundetan akordioaren esperientzia zabala dago; urteetan adostasunak lortu izan dira alderdi politikoaren artean. Hori guztia eredutzat hartu beharko lukete. Batzuetan, ondo lan egiteko inork ez du jakin behar lanean ari zarenik.

Espainiako geldialdiak zer eragin dauka Euskal Herrian?

Apirilaren 28an izan ziren Espainiako hauteskundeak: hiru hila-bete pasatu dira, eta ez dago gobernu berririk; horregatik, denbora galdu da, eta kalte handia egin die Euskadiri eta euskal herritarrei. Geldituta daude Gernikako Estatutuko eskumenen transferentziak, estatu eredu,

pentsoiak, lan erreforma, industria, ikerkuntza eta garapena, trantsizio ekologikoa, azpiegiturak, Euskadiren presentzia zuzenak Europako Batasuneko guneetan... Eskumenen arloan badira hila-bete batzuk Jaurilaritzaren eta Espainiako Gobernuaren artean egutegi bat adostu zutela, baina ez da aurrerapausorik ematen. Denbora galtzen ari gara azpiegiturretan ere adostutako zenbait kontutan. Guk hori dena bultzatu egin nahi dugu. Horretarako, Madrilgo gobernu batek egin behar du, ordea; bestela, ez da aurrera egingo jarduneko gobernu batekin.

Euskal presoek auzia ere hor da. EAJk uste du bestelako kartzela politika bat egin behar dela, zuzenbideetik abiatuta.

Madrilgoak huts egin eta berehala, Nafarroan gobernu akordioaren berri eman dute PSNk-eta. Baiko? EH Bilduren abstentzioa beharko dute.

Nik hor neure iritzia baino ezin dezaket eman. Espero dut Espainiako egoerak eraginik ez izatea Nafarroan, eta gobernuaren eratzeak aukera izan dezagula [Geroa Bai-ko kideetako da EAJ].

EAEko erakunde nagusietan, gobernu ituna duzue PSE-EErekin; Nafarroan, Geroa Bai aukeratu du.

ra du PSNrekin egoteko. Espainiako Gobernuan PSOE egotea komeni al zaizue, beraz?

EAJk nahi duena da Espainian gobernu bat egotea lehenbailehen, baina hori ez zaio EAJri bakarrik komeni, Espainiako gizarteari eta Euskadikoari ere komeni zale eta. Gobernuan zein egotea nahi dugun? Zein da PSOEren alternatiba? Akaso, ahaztu egin dugu [Madrilgo] Kolon plazako argazkia? Espainian zergatik dago orain egoera hau? Guk eskatzen duguna da orain arte adostutakoa betetzea, autogobernuaren aurrera egiteko aukera izatea, lurralde politikan edo estatu ereduaren nazio izaera aitortzea Euskadiri eta Kataluniari... Bai, guk alderdi sozialistarekin adostasun bat dugu Euskadiko erakunde batzuetan, baina, orokorrean, zein litzateke Espainiako Gobernuak onenagotzat?

PSOE?

Badakigu zein den Kolon plazan bildutakoan diskurtsoa [PP, C's, Vox]: birzentralizazioa. EAJk alderdi denekin hitz egiten du beti, hori da gure estiloa, blokeoa inondik inora ez da bidea, baina ez genuke nahi *irrisfazio* hori boterean; horrek on gutxi ekarriko luke gure gizartearentzat.